

Ernest Daudet. *Amodioaren martirra. Dolores, emazte bat berthutez bethea.* Itzultzaile-moldatzailea: Elizetxe. Sarrera, edizio kritikoa, hiztegia eta edizio modernoa: Xabier Altzibar Aretxabaleta.

Iraultzako gertaeren ondorioz, hazi ziren jauregia errea eta markesa hilik, lau urtez bat bertzeaganik bereziak izan eta, Pariseko Kortserjeriako presondegian elkarrekin suertatzen dira Dolores buhame alaba ederra eta Salvador markes semea. Hona haien arteko solasaren zati bat.

Vauquelasen etxean arrastatuak, Salvador eta Dolores eremanak izan ziren poliziako salara. (...).

Ez zezaketen ilusionerik egin esperantza zuten suertez. Salvadorrek konspiratu zuen erreginaren fagoretan, Dolores haren konplize egin zen errezebituz bere ganberan; krima horrek ez zuen indulgenziarik izaiten ahal. Interrogatuak izanen ziren eta gillotinatzerat kondenatuak. Ez zuten hiltzerat preparatzea beizik phensatu behar. Biak preparatu ziren setentzia jina izan balitz bezala eta ez zuten gehiago phensatu munduan gelditzen zeezteen orenen trankil eta ezti egitea beizik.

–Zendako herioaren beldur izan behar niz? -erraiten zuen Doloresek Salvadorri-, herioaren beldur izan behar da uzten dienean izaitte maiteak lurrean. Bainan, hi ez bahiz bizi, nor

geldituko da ene thonbaren gainean nigar egiteko? Eusebiak uste du aspaldi hila nizala. Juaiten ahal niz mundu huntarik bihotzminik nehorri eman gabe eta joiten ahal niz deskantzu eternalaren bilha, zoina hanbertze desiratu beitut.

–Jadanik phensatua huen?

–Emeki-emeki ikhusi ditut joaiten ene ingurutik maite ditudan guziak; ene bixtak presentziatu du hainbertze malhur eta heriotze; sofritu dut hainbertze khirestasun othoiztu beitut Jainkoa hanitz aldiz bere ganat deith nezan.

–Bizkitartean, Dolores, entzun nahi izan banindunan, ene esposa nahi bahinz izan, zoin diferenta izanen zen gure suertea!

–Ez nintakean hire emaztea izan.

–Zendako? Zendako ez nindunan maite, zendako ez nun maite orai ere?

Doloresek ez zuen ihardetsi, Salbadorrek segitu zuen:

–Ene nahier sensible izaitea othoiztu hutan aldi guziez ez dautan ihardetsi ene aitaren borondatea beizik, hartakotz nahi nindunan Eusebiarekin ezkondia ikhusi. Orai ene aitaren borondatea ez dun bizi eta erraiten ahal banu Eusebiari hi bakharrik maite hutala, gogotik egin lezaken desira horren konplimendua. Bainan horiek guziak destruitiak dira aurkhitzen giren situazione berrian. Libro

gira gure beha dagon herioaren aitzinean. Ez datan erranen egia guzia? Ez datan idekiko hire bihotza nik enea ideki denatan bezala?

Doloresek entzun zituen hitz horiek Salbadorri beha zagola, bihotza ttipitzen ari tzitzakola, harritua hitz horietaz: “Libro gira gure beha dagon herioaren aitzinean”.

*Berriz hori bera erranez, egiten zuen ez ziola errefusatzan ahal bere adixkideari galdegiten zuen azken alegria, berak ere hanitz sofritu zuela bere bizia eta esperantzak oro sakrifikatuz, bazuela dretxoa bere ariman hainbertze denboraz gordea atxiki zuen segetuaren eskapatzerat uzteko. Azkenean haren ezpainerik athera ziren hitz hauk:
–Adi zak, Salbador, nahi dukanez geroz egia jakinik trankil Jainkoaren aitzinean ahartu. Bethi maite izan haut egun maite hautan bezala, eta bizi nizano maithatuko hautan bezala.*

Hainbertze ezintasun bazen hitz horien erraiteko maneran Salbador jaiki baitzen, galdua, begiak argituak ezin erranezko alegria batez, zioela:

–A! Azkenekotz athera dun hire ezpainerik hainbertze desiratu dudana. Ez zen posible ene amodio handiak errapusturik ez izaitea hire bihotzean. Hoinbertze zorion ene biziaz pagaturik ere ez zitzetan khario idurituko.

Itzularazten ditun ene indarrak; azkar senditzen nun, nun iduri baitzetan mundu guzia alxatzen ahal dutala gure salbatzeko eta gure zorihonaren segurthatzeko. Biziko gira, Dolores, bat bertzearenak izaiteko eta elgarren adoratzeko.

–Othoi -dio Doloresek-, ez zakala bizitzea galdegin, hiltzeko segurtamenak baxharrik gisa hortan mintzarazi bainu.

(VIII. parte, Presondegia, XXXV, 143-145)

Salbador, Dolores eta Eusebiaren arteko triangeluan, Salbador eta Doloresen amodioa gatazkatsua eta ezinezkoa da. Doloresek uko egiten dio Salbadorren amodioari, aitaorde markesari zion fideltasunagatik, baita Eusebiaren alderako adiskidantza, karitatea eta urrikalmenagatik; fideltasuna, maitatzeko libertatearen gaineratik ezarria dago nobela honetan. Dolores kristau bertutez betea da; gainera, Iraultzak, martiri bilakatuko du. Korapiloaren askatzea ideologia tradizionalaren araberakoa da, II. Inperioan ohi zenez. Ordea, ingelesezko moldapenean (*Which? Or Between two women*, 1893) bukaera zoriontsuarekin finitzen da.

Roman hau Frantses Iraultzaren aitzin eta ondoko gertaeretan kokatua dago (1770-1794); azken atala, Napoleonen Inperioa erori ondoko monarkia berrezarriaren garaian. Lehen bost kapituluak Frantzia hegoaldeko Nîmes inguruan gertatzen dira, ondorengo zazpiak Terrere garaiko

Parisen, Kontserjeriako eta Madeloneteko presondegi ospetsuetan. Amodio erromantikoaz eta ideologiaz gain, politika eta gizarte borroka ere ageri da.

Amodioaren martirra nobela erromantikoa da, (sasi)historiko motakoa, edizio merkeetan nahiz hedapen handiko komunikabideetan argitaratua, emanaldika (*folletoi-nobela*). Jendeak, batez ere jende xeheak eta bereziki emakumeek, hori irakurtzen zuen; *nobela popularra* deitzen zen genero hori, jende oste handiak irakurtzen zuelako. Literatura herrikoi horretan kokatzen da euskarazko moldapen hau; ez dugu beste halakorik euskaraz, garai hartakorik, eta dirudienez gerokorik ere ez. Horko hizkera literarioa edo, nahi bada, sasiliterarioa frantses, gaztelania eta beste hizkuntzen parekoa da.

Roman honetan sentimendua ageri da ororen gainetik, are folletoi-mintzairaren gainetik. Sentimendu biziak borborka (amodioa, haserrea, etsipena), eta bestalde, sentimenduen aldaketa azkarra. Egungo irakurleek mintu usain melodramatiko, negartsu eta patetikoa kausituko dute, baina emozioa ere bai, agian.

Literatura aldetik aztertua dut *Beñat Oihartzabali Gorazarre* liburuan (2009, 51-66).

Gure edizioa

Edizio honen bidez, balio literarioko obra bat berreskuratu dut, galdua zen obra bat.

Eskual-herria astekariko edizioaz (1900-1901) inor gutxi ohartu da, bibliografoek ez dute aipatu, ez beste inork. Egia da kazeta hura urria eta toki gutxitan kontsultai dela. Baina misterioa dirudi, *nobela popularra* deritzon generokoa izanik, nola galdu den euskaraz halako bat. Ez da guztiz harritzekoa, gure ustez, ezen nekez irakur zitekeen *Eskual-herriak* argitara zuen bezala, hutsez josia baita.

Bestalde, frantses literaturan ere ez da ageri, sortzez frantsesa den obra hau euskarara itzuli zela. Egilea bizi zelarik eta oraino nobelak idazten ari, ez zuen jakin euskaraz itzulita argitaratu ziotela bere obra. Bestela agian egile eskubideak erreklamatu zizkion, ingelesezko itzulpenari bezala. Hortakotz, egilearen izenik gabe agertu zen, noiztenka Elizetxe delako batek sinatuta eta jatorrizko izenburua (*Dolorès*, 1879; *Dolores*, 1886) aldatuta.

Beraz egilea nor zen, zein ediziotik itzulia den eta nolako itzulpena den ikertu behar izan dugu. Ondorioz, badakigu egilea Ernest Daudet (1837-1921) frantses idazle, politika kazetari, historia liburuen egilea eta politikaria izan zela, erregetiar-bonapartisten aldekoa, politika kargu handiak izan zituena II. Inperioan eta Errepublika *xuriaren* garaian.

Ernest baino ospetsuagoak dira haren anaia Alphonse Daudet (1840-1897) eta honen seme eta haren iloba Léon Daudet (1867-1942).

Badakigu *Amodioaren martirra* itzulpena baino gehiago moldapena dela. Hasteko, Elizetxek folletoi erara moldatu zuen Daudet-en eleberria. Gero, laburtu eta aldatu egin zuen jatorrizko obra, izenburutik hasita; pertsonaia batzuei euskal tradizioko izenak ezarri zizkien, Robespierre jarri zuen Fouquier-Tinvilleren lekuan. Beste xehetasun batzuk ere txertatu zituen Elizetxek bere moldapenean: Euskal Herriko buhameak eta haien euskal-erdal hizkuntza nahastua, Baiona eta Ortzaize, Bordeleko orrazkera etab. Gehiago dena, erlijio kutsu handiagoa erantsi zion.

Badakigu ere ez dela jatorrizko frantses nobelaren itzulpena, gaztelaniazkoarena baizik, 14 urte aitzinago argitaratu zena (*Dolores* 1886).

Egun lehen aldiz agertzen da liburu formatoan. Testua jendaurrean plazaratzeko museoko kontserbatzailearen lana egin behar izan dut. *Eskual-herriako* testuko pasarte ugari itzulipurdikaturik daude, zati osoak hutsez beteak, testua ulerkaitza da ardura. Atera izan banu kazetan eman zuten bezala, ez zen ulertuko: edizio kritikoaren bidez testua interpretatu eta ulergarria egin dut, batzuetan are zuzenduz baina testua errespetatuz. Hitzez hitz, komaz koma, puntuz

puntu, paragrafoz paragrafo behin eta berriz aztertu dut, gaztelaniazko bertsioa eta frantses originala erkatuta.

Beraz 844 oharren bidez finkatu dut testua. Hitz eta adizkiei buruzko azalpenak eskaintzen ditut oharretan eta hiztegian. Obra honetako joskera molde ezohikoak ohartarazi ditut, ez baitira ageri Euskaltzaindiaren Gramatikan. Ezta zenbait hitz, hitzen forma eta adiera Euskaltzaindiaren OEHN, hartakotz bildu ditut hiztegiaren eranskin berezi batean. Testua egungo ortografiara ekarri dut, baina ahoskera errespetatuta. Grafien aldetik batasun bat eman diot nire edizioari, eta aldaketa guztien zergatiak azaldu ditut hitzaurrean eta oharretan.

Eleberriaren bertsio modernoa ere egin dut, euskara batura hurbilaraziz formaz (ortografia, toki izenak, adizkiak, atzizkiak, erakusleak), baina Iparralde-ekialdeko hiztegia, joskera eta gaztelaniatiko maileguak errespetatuz, eta beraz testua ahalik eta gutxien aldatuz. Bai eta hiztegia, ulerterrazagoa izan dadin eta eta hitzak biltzeko asmoz. Iparralde honetako eta gaztelaniatik mailegaturiko hitz ugari biltzen dituena.

Beraz folletoi nobela honetan Robespierre, errepublikanoak nahiz markes-markesak eta haien zerbitzariak, herritarrak, martirrak zein buhameak euskaraz mintzo dira eta ez euskara klasikoan ezta apainduan baina herri-euskaran,

berdin hitanoz. Gainera, itzultzaileak tarrapataka eta heldu zaion bezala moldatu zuen euskaraz, horregatik bihurri samarra da eta anakolutoz betea da. Bestalde, frantses edo gaztelaniaren ñabardura guziak itzultzea ez zatekeen erraza, are gutxiago herri euskaran.

Eta itzultzailea, Elizetxe delakoa, nor ote zen? Nik uste Bidarra-Ortzaize-Baigorri ingurukoren bat zela, ontsalaz apezka; J. Haritxelarrek esan zigun berak entzuna zuela bazela Ortzaizen apez bat, deitura horren jabe. Baina ez dut zilatu nor izan zen. Eta merezi luke.

Bururatzeko, eskerrak bihurtzen dizkiot Euskaltzaindiari, edizioa argitaratu didalako. Eta halaber Jon Casenave irakasle, ikertzaile eta idazleari, haren jakintza eta sostengurik gabe ikerlan hau eta Iparraldeko idazleei buruzko beste hainbat ez nituzkeelako bururatuko.

Mila esker.

Bibliografia

Altzibar, X. 2009. “*Amodioaren martirra (1900-1901), foiletoi nobela ezezaguna*”. *Benat Oihartzabali Gorazarre-Festschrift for Bernard Oyharcabal*, R. Etxepare–R. Gomez–J. A. Lakarra (arg./eds.), *Anuario del Seminario De Filologia Vasca “Julio de Urquijo”–International Journal of Basque Linguistics and Philology* XLIII:1-2 (2009), 51-66.